



IKUSKERAK - 8

(2015eko urria)

SARRERA

IKUSKERAK txosten hau urteroko **bildumaren zortzigarrena** da, zeinaren helburu orokorra den gizon eta emakumeen jarrera edo iritzien artean aldeak hautematen diren gaien inguruko datuen bilketa.

Zortzigarren IKUSKERAK 2014. urtean kaleratutako 55. Soziometroa-Osasungintza monografikoko datuak biltzen ditu sexuaren arabera berezita. **Osasungintzari** dagozkion gaiez gain, **bizi-kalitatea eta balio sozialei** buruzko zenbait alderdi ere aztertu dira.

NABARMENTZEKOAK

• OSASUNGINTZA

- Emakumeek zein gizonek Euskadiko Osasungintzaren **funtzionamenduaren balorazio positiboa** egin dute: %86k eta %89k, hurrenez hurren, *ondo edo oso ondo* funtzionatzen duela diote. Gainera, **Euskadiko osasun zerbitzuak Estatuko beste lekuetakoak baino hobek** direla uste dute hamar herritarretatik sei baino gehiagok (Emakumeak %64 – Gizonak %63).
- Jaurlaritzak osasungintzara bideratutako **baliabideen nahikotasunari** buruzko biztanleen **iritzia zatikaturik** dago, are zatiago emakumeen artean (%46ren ustez *behar direnak dira* eta %42ren ustez *gutxiegi*). Emakumeak gizonak baino kritikagoak dira azken 5 urteetan Eusko Jaurlaritzak osasungintzara bideratzen dituen **baliabideen bilakaeraren inguruan**.
- **Emakumeen** artean gizonen artean baino **apur bat zabalagoa da** arreta pribatua baino **Osakidetzaren arreta jaso** nahiago luketenen portzentajea, izan ebakuntza baterako (E %82 – G %77) edo espezialistaren kontsulta baterako (E %72 – G %69).
- Gizon zein emakume, hamarretik zortzi pasak uste dute **osasun sistema zergen bidez finantzatu beharko litzatekeela**. Haatik, emakumeen %46k eta gizonen %47k deritzote **etorkizunean finantziario mistoa** izango duela, hots, *zati bat zergen bidez eta beste zati bat paziente bakoitzak, bere diru-sarreraren arabera ordainduko duela*.
- Egoera irregularrean dauden **immigraanteei mediku-arreta** eskaini behar zaiela uste dute emakumeen %59k eta gizonen %61ek, *euren lege-egoera eta erroldatuta daramaten denbora albo batera utzita*.
- **Mediku-zerbitzuak eta botikak neurritz kanpo** erabiltzen diren pertzepzioa nahikoa hedatua dago herritarren artean, jendea medikuarenera behar baino gehiago joaten dela eta behar baino botika gehiago hartzen dituela uste dute erdia baino gehiagok.
- la herritar guztiek baloratu dute **positiboki errezeta elektronikoa** baina **emakumeek** gizonek baino dezente **gehiago erabili** dute (E 70% – G 56%). Bestalde, **botiken kopagoa gaizki edo oso gaizki** baloratu dute emakumeen %57k eta gizonen %59k.
- Emakumeen artean gizonen artean baino **ezagunagoak** dira **Osakidetzaren prebentziorako eta detekzio goiztiarrerako programak**. Aldeak nabarmenagoak dira jaioberriei egiten zaien orpoaren proba eta haurren hortzak zaintzeko programei dagokienez, titietako minbizia eta ondesteko minbizia goiz detektatzeko programei dagokienean baino. Herritarren gehiengo handia ados dago Osakidetzako baliabideak programa horietarako erabiltzearekin.



• BIZI-KALITATEA

- Herritarrak nahikoa **zoriontsuak** dira euren bizitzekin, **7,1**eko puntuazioarekin, Oitik 10erako eskalan. Guztien iritziz zoriontsu izateko **faktorerik garrantzitsuenak** osasuna eta familia dira, ondoren lana eta maitasuna aipatu dira eta azkenik, dirua eta lagunak. Haatik, emakumeek gizonek baino garrantzia handiagoa eman diete **osasanari eta familiari**, eta **txikiagoa**, aldiz, **maitasunari, diruari eta laguntasunari**.
- Emakumeen %84 eta gizonen %85 *oso edo nahikoa pozik* daude euren bizitzarekin. Euren bizitza pertsonalaren hainbat alderdirekiko **poztasun maila bera** adierazi dute emakume zein gizonek (familia 8,4 puntu, lagunak 8,0 puntu eta harreman afektiboak 7,8 puntu) eta alderik dagoenetan, denbora libreka kasu, oso murrizak dira.
- Emakumeek **astegunetan denbora faltan** izan ohi dutela diote gizonek baino gehiago aztertutako kolektibo guztietan, adin nagusikoenek eta jubilatu edo pentsionistek izan ezik.

• BALIO SOZIALAK

- Emakumeek gizonek baino apur bat **konfiantza** gehiago adierazi dute **besteen zintzotasunarekiko**, emakumeek 6,0 puntu eta gizonek 5,8 puntu eman dituzte, Oitik 10erako eskalan.
- Herritarrek **konfiantza** eskasa adierazi dute **besteen elkartasunarekiko**, nahiz eta emakumeena (4,7) gizonena baino (4,4) apur bat altuagoa den.
- Herritarren gehiengoak **homosexualen ezkontza eta adopzio eskubideekin** ados egonik ere, emakumeek gizonek baino adostasun handiagoa adierazi dute.
- Emakumeen %76k eta gizonen %72k uste dute *gaur egun* **tolerantzia** gehiegi dagoela, *eta gaizkileak gogorago zigortu beharko lirakeela*.
- Hamar herritarretik seik –E %63 eta G %65– uste dute **berdintasun eta justizia gehiago behar dugula**, horrek askatasun pertsonal gutxiago ekarriko baligu ere.
- **Emakumeen** artean gizonen artean baino **apur bat adostasun txikiagoa** dago *denbora libreari, aisialdiari lanari baino garrantzi handiagoa eman beharko litzaiokeela esaterakoan* (E %55 – G %58).
- **Erljiok** gure gizartean toki garrantzitsuegi daukala deritzote emakumeen %45ek, gizonen %51ren parean.
- Europa osoan porroak erretzea **legalizatzearen aldekoagoak dira gizonak** (%52) emakumeak baino (%39).
- **Immigranteak** *Euskal Herriari asko laguntzen diotela* uste dute emakumeen %47k, gizonen artean %54 diren bitartean.

Ikerketa honen fitxa teknikoa 55. Euskal Soziometria "Osasungintza" txostenean kontsultatu daiteke. Lagina 18 urtez gorako biztanleei zuzendua, EAE osorako 2.576 lagunek osatua da. Etxean egindako banakako elkarrizketa bidez. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm 2,0$ koa da EAeko biztanleria osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2014ko maiatzaren 5 eta 12 bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

http://www.euskadi.eus/ikerketa_sociologikoak